

Bazen
behin...



GERNIKA-LUMOKO UDALA
Euskera Zerbitzua



Aholkuak zure seme-alabek irakur dezaten

Zer egin dezaket nire seme-alabek irakur dezaten?

Jaiotza eta berehala hasten gara irakurtzen ikasten. Entzutea eta berba egitea oinarrizko prestakuntza dira irakurtzen ikasteko. Umea oraindik letrak ezagutzen hasi aurretik ere, gurasoek badaukate umearengan irakurtzeko zaletasuna pizteko modurik. Ipuinak irakurtzen dizkiozunean, jolaserako liburuak ematen dizkiozunean eskura... irakurtzen hasteko bultzada ematen diozu.



Bi hizkuntzatan irakurtzeak badu bere alde liluragarria: **lehenengo hizkuntzan irakurtzeko gaitasuna guztiz lagungarri da bigarren hizkuntzan irakurtzeko.** Modu errazean esateko, **hizkuntza baten irakurtzen dakienak erraztasuna izango du bigarren hizkuntzan irakurtzeko.** Ez dugu birritan ikasi behar irakurtzen. Hizkuntza baten daukagun trebetasuna bestera ekarri dezakegu.

Euskaraz irakurtzea mesedegarri da euskaraz berba egiten ikasteko eta berba hobeto egiteko, batez ere norbere inguruan euskaraz berba egiteko aukera askorik ez daukagunean.




Aholku praktikoak



EZ BEHARTU IRAKURTZERA: irakurketa eguneroko kontua bihurtzea da gakoa. Txiki-txikitan aitzak eta amak izango dute funtzio hori. Aurrerago, zabalduz joango da irakurketari eskaintzen zaion tarte eta hurrek eurek erabakiko dute zenbat, noiz eta non irakurriko duten.

LIBURUAK ESKURA JARRI: jostailuak ez bada era ere, liburuak eskura egon behar dute. Haurra jaiotzen denetik bere liburutegia izatea bultzatu behar da.



LIBURU DENDAK BISITATU: azoka eta erakusketak ere denbora pasa atsegin bihur daitezke, gogoko duen izenburua aukera dezan diru-kopuru bat ematen bazaio, erosketa-irizpideak garatzen hasiko da eta zein obra erostea merezi duen bebizten hasiko da.

EGUNEROKO OHITURA: txikienei gauero ipuin bat irakurriz eguneroko irakurketa ohitura bihurtuko da denboraren poderioz.

ZALANTZAK ARGITU: ulertzen ez diren terminoak hiztegian bilatu behar dira. Hiztegia aberasteko ohitura hartzen da horrela.

LIBURURIK EZ DEBEKATU: nerabezaroan irakur zaleak diren haur asko galtzen dira. Hori ez gertatzeko, liburuak aukeratzeko askatasuna izan behar da, sekula ez da titulurik debekatu behar.

LIBURUTEGIKO BAZKIDE IZAN: eskura dugun ohitura erraza da txikitatik seme-alabekin batera liburutegira joatea. Dirurik gastatu gabe liburuak eskuratzeko aukera ematen dute liburutegiek. Gainera, liburuak nola aukeratu irakasteko balio dute.

ZALETASUNETARA EGOKITU: edozerk balio dezake irakurketara hurbiltzeko: gaurkotasuneko gai bat, pertsonen efemerideak, oso gustuko izan duten film bat...

IRAKURKETA KONPARTITU: seme-alabak nagusitzen doazen heinean, gurasook irakurtzen ari garen liburuak eskaintzeko aukera dugu. Irakurketa elkarrizketa gai erakargarria izango da guraso eta seme-alaben artean.

Liburuak adinaren araberakoak



Haur eta gazteentzako literatura eskaintza oso aberatsa da. Egunean egotea zaila da eta, batzuetan, haurrek eurek eskatuko dituzte modan jartzen diren izenburu eta bildumak.





LEHEN BI URTEETAN deskubritu, haginka egin eta ukitzeko elementu bat gehiago izango da liburua. Merkatuan badira oihalezko eta plastikozkoak, soinudun eta sensorialak.

2 ETA 4 URTE ARTEAN liburua liburu bezala bereizten hasiko da haurra. Ikasten ari diren elementuak beste era batera irakasten dutenek izango dute arrakasta: hotza eta beroa, goian eta behean, barruan eta kanpoan... bereizten irakatsiko diote. Errealitate handiak -eguzkia, ilar-gia eta planetak- azaltzen dituztenak ere gomen-dagarriak dira.

4 URTETIK 7RA BITARTEAN bere norbanako identitatea garatzen hasten da haurra. Garai horretan funtsezkoa da irudimena, baita logikaren barruan kontatutako istorioak eta amaiera zorionsua dutenak. Gainera, baloreak bereganatzen hasten da adin honetan.

7 URTETIK 9RA BITARTEAN zergatien adina da hau. Garai honetan guztia da zuria edo beltza: pertsonaia onak oso onak dira eta txarrak oso txarrak, eta irudimen dosi handiak ageri dira leku guztietan.

9 URTETIK 12RA BITARTEAN abenturen garaia da, zientzia fikzioarena eta melodramarik gabeko maitasunarena. Horrelaxe hasten dira misterio eta abenturazko eleberrietan sartzen, adin bereko pertsonaia umoretsu eta ausartekin. Adin egokia da mamu eta sorginekin topo egiteko ere eta beldurrak gainditzeko formula ona da.

12 URTETIK AUERRERA etaparik zail eta erabakigarriena da hau. Irakurketaren xarmari eutsi egin behar zaio, gurasoek ezer gutxi egin ahal izango dute hemendik aurrera liburuen aukeraketan. Gaztearen gustuen arabera literatura aurkitzeko laguntza eta aholkuak ematea baino ez dago.

Informazio gehiagorako

Gai honen inguruko liburu batzuk:

- Marina, José Antonio:
"La Magia de leer".
- Moreno, Víctor:
"El deseo de leer".
- Moreno, Víctor:
"Leer con los cinco sentidos".
- Pawagi, Manjusha:
"La niña que odiaba los libros".
- Reyes, Lourdes:
"Vivir la lectura en casa".
- Rico, Lolo:
"Si tu hijo te pide un libro".

<http://www.galtzagorri.org/>
<http://www.sol-e.com/>

Euskera Zerbitzua: 946 270 205
euskera@gernika-lumo.net

